



## Ukrainako Caritasek zibilentzako larrialdietarako laguntza-plana mantentzen du, «inor atzean ez uzteko» asmoz

Errumania, Polonia, Moldavia eta Bulgariako Caritas muga igarotzen duten errefuxiatuei laguntza humanitarioa emateko programak prestatzen ari da

2022ko martxoak 2-Gero eta arrisku handiagoa duen egoera honen erdian, Ukrainako Caritasen egoitzek laguntza behar duten zibilak artatzen jarraitzen dute. Herrialde osoan zehar dituen 36 bulegoak elkarlanean ari dira Kieven eta Lviven dauden Caritas nazionalako egoitza eragileekin.

Segurtasuna dela eta tokiko bulego batzuk ebakatu behar izan dituzten arren, herrialdearen ekialdean eta Kievko auzo batzuetan batez ere, salbu dauden Caritasen zentroek jarraitzen dute lekualdatu behar izan duten pertsonak artatzen, eta tokiko beste erakunde humanitario batzuekin batera, gerrak kaltetutako pertsonen beharrik premiazkoenak identifikatzen ari dira.

Inbasioa hasi zenetik, Ukrainako Caritasek larrialdietarako proiektua mantentzen du, pertsona zaugarrienen oinarritzko beharrei erantzuteko. Une hauetan, 11 harrera-zentro laguntza humanitarioarekin ari dira hornitzen (Kramatorsk, Rubizhne, Zaporizhya, Volnovakha, Mariupol, Kharkiv, Dnipro, Kyiv, Zhytomyr, Odesa, Ivano-Frankivk), larrialdietarako erantzun-planean gehitzeko.

Ukrainako Caritasek lehentasuna ematen dio janari beroa, ura eta oinarritzko higiene-kitak banatzeari, etxebizitzak utzi dituzten pertsoneri aldi baterako aterpea emateari, garbiketa-zerbitzuari eta herrialdeko beste eremu batzuetan senideekin elkartu nahi duten pertsonen garraio seguruari. Halaber, larrialdi-planaren barruan dago kasu berezietan laguntza eskaintzea (esaterako, adineko pertsoneri, adin txikikoei eta desgaitasuna duten pertsoneri), oinarritzko laguntza emozionala ematea eta haurrei aisialdirako jarduerak eskaintzea, erasoek eragindako estres handiko egoeraren erdian normaltasuna mantendu ahal izateko.

Segurtasun eskasa eta zailtasunak gorabehera, Caritasek lan humanitarioa egiten jarraitzen du Ukrainan. Ukrainako Caritas-Speseko zuzendari koordinatzaile **Fr. Vyacheslav Grynevychuk** dioen moduan; “gure hiriak, etxeak eta haur-parkeak suntsitu dituzte. Baina inork ezingo ditu bakea eta askatasuna lortzeko ditugun nahiak suntsitu”. “Une dramatiko honetan, langileen eta boluntarioen lana goraitatu nahi dugu, beharra dutenei laguntzen jarraitzen baitute”, gehitu du. “Eta Jainkoaren laguntzarekin jarraituko dugu gure zerbitzua ematen, inor atzean utzi gabe”.

“Oso harro nago gure taldeekin, gogor ari dira lanean zaugarrienen beharrei erantzuteko, haien egoera pertsonalak kudeatzen dituzten bitartean. Oso eskertuta gaude gure Caritas ahizpen laguntzarekin eta borondate ona duen jendearekin. Mesedez, babestu ezazue gure larrialdietarako erantzun-plana. Beharrak areagotuz doaz egunetik egunera”, baieztatu du **Tetiana Stawnychyk**, Ukrainako Caritasen presidentea.

### ERRUMANÍA, POLONIA, MOLDAVIA ETA BULGARIAKO CARITASEN ERANTZUNAK

Herrialde mugakideetako –Errumania, Polonia eta Moldavia— Caritas erakundeak ere harrera-plan nazionalak aktibatzen ari dira, mugak igarotzen ari diren ukrainar errefuxiatuen-fluxuak hartzeko.

**Errumaniak** 600 km baino gehiagoko muga du Ukrainarekin eta dagoeneko 10.000 errefuxiatu jaso ditu. Datozen egunetan kopuruak gora egitea aurreikusten da. Bucarest, Iasi, Maramures eta Satu Mareko Caritasak



---

hasi dira egoera ebaluatzen eta lehen esku-hartzerako taldeak ezartzen. Larrialdi nazionalerako taldea mugan izan da eta esku hartzeko planak diseinatzen hasi da, larrialdiari erantzuteko programa zehazteko. Errefuxiatuen harreran eta harrera zentroetan jarri dute arreta, (informazioa, garbiketa-zerbitzua, komunikazio-zerbitzuak, elikagaiak eta higiene-kitak) eta horretarako hauren harrerarako programa berezia egin dute, tokiko parrokiak aldi baterako babes eta ostatu gisa gaitu eta harrerarako boluntarioak mobilizatu dituzte.

**Caritas Polonia** ere errefuxiatuen harrera, ostatua eta garraio segurua ari da prestatzen Errumaniako Caritasen antzeko larrialdi-programekin.

Bestalde, **Moldaviak** 1.200 km-ko muga du Ukrainarekin eta Chisinaun duen bulego nazionaletik eta tokiko sei Caritasetatik, Grigorauca, Rascov, Ribnita, Stauceni, Stircea eta Tiraspol, larrialdi-plana jarri du martxan Guztira, 200 eragile ditu lurraldean. Tokiko agintariekin elkarlanean, zentro ofizialetan (Chisinau, Ocnita, Palanca) dauden 390 pertsonari eman diete laguntza; janaria, ura, higiene-kitak eta laguntza soziala eta emozionala. Gainera, Caritasak kudeatutako zentroa prestatzen ari dira Chisinaun, 70 errefuxiatu ingururi ostatu duina eta segurua eskaini ahal izateko, adin txikikoei eta emakumeei batez ere.

Ildo beretik, eta mugarik egiten ez duen arren, **Caritas Bulgaria** ere Ukrainatik datozen errefuxiatuen etorrerari erantzuteko zentroak prestatzen ari da. Errefuxiatuak errepidetik, edo Odessatik ferryan heltzen dira Varnako postura. Otsailaren 28an kalkulatu zen 7.000 ukrainar heldu zirela herrialdera eta aurreikusten da kopuru horrek gora egitea datozen egunetan.

Eremu horretako Caritas guztiek langileak eta boluntarioak prestatu dituzte larrialdietarako erantzun azkarra emateko, babes-protokoloetarako eta jokabide-kodeetarako.